

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Bilbao Musika Toki Erakunde Autonomoa**

Lan-kontratuko langile finko izendatzea Musika Bandako sailerako, Bandako Musikako Goi-Mailako Irakasleko 16 plaza eta Artxiboko Laguntzaile/Atril Jartzaileko plaza 1.

Bilbao Musika TEAren iragarkia, lanpostu hauek betetzeko deitutako hautaketa-prozesuko lan-kontratuko langile finkoak izendatzeko:

Bandako Musikako Goi-Mailako Irakasleko 16 plaza (A lanbide-sailkapeneko taldekoak, A1 azpitaldekoak, horietatik 2 euskarazko derrigorrezko 3. hizkuntza-eskakizunekoak eta beste 14 plaza euskarazko derrigorrezkoa ez den 3. hizkuntza-eskakizunekoak); eta Artxiboko Laguntzaile/Atril Jartzaileko plaza 1 (C lanbide-sailkapeneko taldekoa, C2 azpitaldekoa, euskarazko derrigorrezkoa ez den 2. hizkuntza-eskakizunekoak). Denak dira 2022ko enplegu publikoaren eskaintzakoak, salbuespenezko egonkortze-prozesuaren bidez betetzekoak.

Bilbao Musika TEAn lan-kontratu finkodun langileen lanpostuak betetzeko salbuespenezko egonkortze-prozesuak arautu behar dituzten oinarri orokorren bederatzigarren oinarriarekin bat etorrita (2022ko azaroaren 28ko Bizkaiko Aldizkari Ofiziala, 226. zenbakia), Zuzendaritza Kontseiluak, 2024ko ekainaren 28ko Ebazpenaren bidez, hauxe xedatu du:

Bat: Honako hauek proposatzea: Ignacio Primitivo Gurruchaga Azpiazu jauna eta Susana Torre Sainz andrea Bandako musikako goi-mailako irakaslea: Txirula - Piccoloko plaza biak betetzeko, Juan Palomares Corella jauna, Sergio Bueso Climent jauna eta Ivan Arostegui Acosta jauna Bandako musikako goi-mailako irakaslea: Klarineteko hiru plazak betetzeko, Gorka Múgica Urain jauna Bandako musikako goi-mailako irakaslea: Perkusioko plaza betetzeko, Carlos Roch Catalá jauna Bandako musikako goi-mailako irakaslea: Tronpeta- Fliskornoko plaza betetzeko, Andoni Múgica Zubiaurre jauna, Donis Aleixandre Torrent jauna eta Javier Forner Galbis jauna Bandako musikako goi-mailako irakaslea: Tronpako hiru plazak betetzeko, Izaskun Laserna Mora andrea eta Patxi Eserverri Carricaburu jauna Bandako musikako goi-mailako irakaslea: Tronboiko plaza biak betetzeko, Juan Jose Munera Balaguer jauna eta David Abellán García jauna Bandako musikako goi-mailako iraskalea: Bonbardinoko plaza biak betetzeko, Jose Miguel Rochina Rodrigo jauna eta Francisco José Yáñez Garrido jauna Bandako musikako goi-mailako irakaslea: Tubako plaza biak betetzeko eta Ivan González Pereira jauna Artxiboko Laguntzaile - Atril jartzaileko plaza bat betetzeko. Denak daude 2022ko EPEan.

Bi: Gurruchaga jaunari, Torre andreari, Palomares jaunari, Bueso jaunari, Arostegui jaunari, Múgica jaunari, Roch jaunari, Múgica jaunari, Aleixandre jaunari, Forner jaunari, Laserna andreari, Eserverri jaunari, Munera jaunari, Abellán jaunari, Rochina jaunari, Yáñez jaunari eta González jaunari, ebazpen honen berri ematea, 2024ko urriaren 7tik aurrerako ondorioekin. Interesdunek 30 egun naturalezko epea daukate Giza Baliabideak Antolatze eta Kudeatzeko Zuzendaritzara joateko eta lanpostuaz jabetzeko.

Hiru: Ebazpen hau argitaratzea Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta web orrian (<https://ope.bilbaomusika.eus>).

Bilbon, 2024ko urriaren 7an. — Zuzendari gerentea, Ana Isabel Madariaga Ugarte